

503/2022 EBAZPENA, apirilaren 5ekoa, Barrualde-Galdakao ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Barrualde-Galdakao ESiko Oftalmologiako Atal Sanitarioko burua -pertsonakiko zerbitzuaren jardueraren kudeaketa eta koordinazio arlokoa- hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den

AURREKARIAK

Barrualde-Galdakao ESiko zuzendari gerentearen 25ko 89 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Barrualde-Galdakao ESiko Oftalmologiako Atal Sanitarioko Burua -pertsonakiko zerbitzuaren jardueraren kudeaketa eta koordinazio arlokoa-izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko martxoaren 7ko EHAA 47. zk. eta 2022ko martxoaren 14ko BOE 62. zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko apirilaren 4an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Barrualde-Galdakao ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Barrualde-Galdakao ESiko Oftalmologiako Atal Sanitarioko Burua-pertsonakiko zerbitzuaren jardueraren kudeaketa eta koordinazio arlokoa- izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina).

Bigarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Barrualde-Galdakao ESiko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Galdakaon, 2022ko apirilaren 5a.



Barrualde-Galdakao ESiko zuzendari gerentea,
JON GUAJARDO REMACHA



I. ERANSKINA

**BARRUALDE-GALDAKAO ESI-KO OFTALMOLOGIAKO ATAL SANITARIOKO
BURUA-PERTSONAKIKO ZERBITZUAREN JARDUERAREN KUDEAKETA ETA
KOORDINAZIO ARLOKOA- IZENEKO LANPOSTUA**

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- Ioana Romero Moreno

Baztertuak:

- Inor ez